

betiko bego
zeruaaann...!!!

Natxitu'ko jaupa abestua
utz emon ebalat? Tamala, benetan, tamala. Baia, epeltasunak ezituzan atzeratu neskatilak? Euri apufak, atzeratuko zituzan ba? Bai zera; arpegi garbijan, eurijak ez daki *ezaugaririk* izten. Elantxobe'ko neskatilak, zuzen ziatzegiak dituz D. Juan; guztiak eruan gurarik, goixian berandu egin, eta alan da be satsaldian be *ezituzan* danak eruan. Ufenguan tanbafagaz deia jo ta ederto.

Beukan, ba, D. Juan
Ravanello'ren abotz bitako jaupa polita gertuta; Natxituko ertxadon edefian ots edefa emongo eban ba. Ufengorako, geuria ta erdi abestuko dogu, baia beafegaz ekafi ebazan Altzeta-*etxeko* ufetxindofak

(Elize bat
Bakarne bi,
Zumafaga aldeko
gaztiak bi),

ordainez, itzaldi bana egin biarko deuskue. Igezkue tanta, tantia izan zan baia... eztiya, eta erletegi ofetan bada eztiya.

Eta Don Juan,
eta Don Juan,
beti daukagu
goguan
betiko bego
zeruaaann!!!

Gaur, dirudijenez miña
edo jan dogu. Ufenguan makilan buztena edo txekor belafija jan biarko. Baia artazi luzien jaube dan artezka rija dau EKIN'ek, eta orkonpon, D. Juan, beragaz. Gu ondo oituta gaurkaz...

LILI-EDEKA

Abadiño.

Urkiolan.
Igaro dan igandean eleizea donkidatuteko Gotzaina Urkiolaratu zan. Zeregin luzia zan baña egoan gizozteari atsegin izan yakon yai ori. Anasagasti'tar Pedro yaunak bertako Efectoreak lagunduta oso ederto gertauta egon zan. Abaitua, Durangoko yaupalburua, Abadiño'ko txauburua ta organistia Markaida, Anzaga, Elorduy, Eguzkiza, Balerio, Gaztelufutia anai biak, Unemuno, Olabafieta, Pagola ta abar. 8'tan asi ta ordu batetan amaitu. Gotzainak itzaldi labur bat egin eban, euzkeraz eta erderaz, Epistolaz be bat bertan, Befizko Arana ordendu eban.

Urte guztian parkamenak eleizea ikertauaz irebazten dira, ta gero donkintuko egunean. Gauzak ederto apaindu ta gertauta egozaz. Zorionak ango eleiza zaineri.

Mendiolarak.
Baxa eleizea apainduten gogor diardue. A bay eleiza polita izango da. Barutik eta azaletik oso orniduta geldituko da.

Bide baria.
Sagastabeitia'tar Rafael eta lagunak, atxarterako zubiak egiten asi dira. Udalen eretxia da Matienekoa ta Atxartekoa batera egitea. Ederto dago oldoztuta. Goiko auzoak goikoa egin dagiela, eta bekoak bekoa. Orain azti apur bat be badago eta ekin. Abadiñok beste efi guztiai erakutsi bear dausie efi batek ondo alkartu ezkeru egin daiken.

Naskaldia.
Salterain, Zuazua, ta Kamara, Sautufaran'dik etxeratu dira, ta pozik.

Ezkon-deyak.
Asueta'tar Primitibo, Durango'koa, ta Goikolea'tar Elena'nak, eta Afingaga'tar Enrique, Markiña'koa, ta Afinda'tar Guadalupe'n ezkon-deyak, igaro dan igandian asi ziran. Zorionak.

Andolin
Deunaren jayak oso alai ta andikiro Muntzaraz'tafak ospatu dituez. Bengoa'tar Kandido jaunak, basa-eleiz ori berak dakian lez gustiz ederto apaindu dau. Bengoa'tar Kandido ta txauburua lagunduta, Mesa emolia Ugalde'tar Alexander jauna ixan zan. Murgoitio Aba josulagunak oso ondo itzaldia egin eban. Abeslariak ondo-ongoen pozagaz edo Isasmendi zuzendari dala bere biziko abotsak aterabezan. Ezekiel'en otelean ordubi ta erdietan sekulako umorea ei egonan. Bai ba, sabelak ondo bete ezkeru, abestia berezkoa da ta ezez urten be gero, batez be ukondoa sifitan okertuten ba eban.

Gure Serapio
ospetsua tituluz arduratsu dabil. Ija-ijan dabil. Lugiñok be, dirastie beti-beiikoa Jaungoikoa dala, eta nozi-pein igartea, Serapiontzat naikoa dala; ta auferantzean patxadaz ba'dabil batera puntu biok jaso ta titulua oso-osoan emoteko. Tira ba, neu be pozago nago ofetarako.

Luistarak.
Igaro dan igandean jaya ta Jaunartzea euki eban. Asabak itxitako bide onari ez itxi. Beti aufera.

Naskaldia.
Bengoa'tar Kandido, Bizkafa'tar Benito ta Letona'tar Aureliano gogo-iñarkunak egiten Gazteiz'eratu dira. Ania'tar Kasildo be egun batzuk igaroten efitatu da.

Lafea'tar Alfonso ta bere sendia be, udaldia igaroten emen dagoz.

Intxaldeko
Ermenegildo'k be lengo egunean eupada bat jaurti eustan esaten eustala ia bere ixena aspaldian EKIN'ean ez ipinteko zer jazoten zan. Erantzun neuntsan, orain ixilik egotia oba ixango dala, gofiok prailien adizkidia ez tiran ezkeru, kokotea gofitu ez dagien. Niri, niri diraut berak, ez Intxaldeko atxean afirik ba'dago. Mutilak au yauk egotekoa. Gofirik ba'dator, nafuok ondo gofituta urtengo dabe emetik.

TRAÑA

**Cantos Vascos
Euzkel Abestijak**

(EUKERA abestiaz ikasteko)
I SAIA

Sanenfiak: ieki bat 0'30. Befogeta amafetik gora artuezkeru 0'25

Banaka idazitagetan, Askoka, egiliarrenian (D. Federico Belausteguigoitia, Durango) eta Jaungoiko-Zale'renien.

Mañari.

Josu'ren Bijotz deuna'ren aintzas.

Lenengo barikuban, Josu'ren Bijotz Deun-deuna'ren aintzat, Jaunartziak eta ototzak egin ziran. Eta elezikixun ofetara ainbat lagun erdu zan.

Kistafontzat, auxe oneraspenik onena. Aintza ta omena Bijotz gozoari!

Joan-Etoñjak.

—Bilbao'ra juan zan Belakortu'tar Juli abertzale zintzua.

—Eibar'era, Sarobe'tar Pausta mutila.

—Iufe'tik etofi zan Zubizafeta'tar Efosale andereñua.

—Gaztañaga'tar Josu Deusto'ko udal-idazkarijak, emeko Udala'ren arazo bat dala-ta, efi ontan egun batzuk igaro dituz.

Gofotxategi'tar Kepa gure auzomutila, Gimon jauna'ren osatetxetik lengo igandian etxeratu zan. Osasun antzaz etxeratu dalako, poztuten gara.

Oba'ra.

Larunbatian Oba'n (Diman) ospatu zan Andolin deuna'ren jaire, emetik be lagun askotxo juan zan. Eta eder-

to ibili zirala-ta, alai etofi ziran. Bai ba...

«Mai ona ta soñua askoren umoria»
uste dogu baña, obatafak, euren zaindari andijaren 'eguna janari-soñuakaz bakafik ezebela ospatuko; gauza edefagorik be egingo eban. Ona bertsuak zer dirauskuben

«Obatafak san Andolin mañe-mañe dabe, beren ondran efezu asko egifen dabe.»

Agurtu.
Igandian agurtu genduzan emen, Oleaga'tar Josepñie emakume zintzua'ta Lebario'tar Karnele bere Jauna ta Oleaga'tar Inaki gastetxua.

Eguna igaroten.
Astelenian juan ziran Urkiola-ganera eguna igaroten, Lafea'ko leka-retxeko pralegeyak iru lekaide buru ebezela.

Eguraldija.
Aspaldijon berotara emona dogu. Solo baratzak lafi ta lugiñak jurduri dagoz. Ta eguraldijak, ondiño be onan jafaitzeko antza agertzen dauku. Tamalgafija da.

Arin osatu.
Beñia'tar Sekunda ziñegotzi (kontzejal) abertzalia, bere gexotik ondiño be ezta osatu. Arin osatzia opa dautzogu, Jel-aldez lan egiteko be.

Lengo igandian.
Igaro goxian, erdi-jantziriko neska gaste batzuk mendirantza igaro ziran. Eta euren lotsabakokerija ikusita, elexarantza johan aguretxu bateri esan neutzon.

—Oferi, zer deritxozu?

—Zer deritxoedan? — aguretxuak arpegi benaz erantzun eustan—Ola-koen lotsabakokeriak azalduteko berbarik bayagon gero... Gure etxeko berezijan; amaikatxu makila eder alpefik bayagon... Ofen bizkafetan a zelakoak emon leikezan! denganiñuak!

Eta berba ofek amatziat, gure agure zintzua, elexarantza, asafe be asafe juan zan. Gitziaurako etzan...

MAÑARIKO

Agur «EKIN»eko artezkari jauna, Ereño'ko Emakume - Abertzale - Batzakuari eta idazle eta irakurle gustieri.

¿Nun zarie «Jel-Orde» eta «Azkatu-Arte»? Lotan zagoze? Itzartu eta bizkortu zaiteze eta ez aspertu idazten. Orko izpafak irakurteko oso pozik egotenaz ni. Or danak egoten eypadire be. Eta... ¿gaurko «EKIN» ek be igarotako igandetan lez ur bedeinkatu ontzijen sartuko ete dabez ba? Margaritu ofek. «EKIN»ek barik berak deko arek bedinketu biefia eta sartu egixue bera bein.

Agurtu.
Igandian emen agurtu doguz txifingutzian Ereño'tik etofite Aldamiz'tar Domeka eta Ortuoste'tar Bitor mutil abertzaliak.

«Mañariko» begikuori. Ez gero zeu aspertu nik idatzi afen. Nik noisik bein egingo dot artezkari jaunak lekuri isten badost. Baña jafaitu auferantza be. Zuk lako izpar txortatxu politek edonok ezteuz bialduten eta ganera zuk lez jafaitu iñok be... ez.

Bedarona'ko
«Mayoranie»ri. Uste dot aspalditxun ixil samar zabizela. Ia datofen iganderako ze polito bialduten dozuzen orko izpafak.

Bartolome Deunaren egunien zelan ibili ziñien edo... Bai «Mayoranie»; aspalditxuen ni be ufunetik nabiz baña. ¿Ez eta delduko egunik guk bijok alkar ezagutu eta beste-kuek estututekorik?

ATXOSTEKO

Erigoiti.

1636

Iraia 6'an etofi zan elezea ikusten don Antonio Hernandez del Soto, Medrano deritxon bat eskribau eballa. Mayordomu zan Inigo de Etxebafieta. Kontuek izenpetu edo firmetan ditu Martin de Afien'ek, eta au izan zeitekean bear bada Justizieko. Efioko eskribau legoa da, Martin de Katalinaga, baya idatzi beste batek egiten deutzo ta berak izenpetu bakafik. Garie saldu zan ogeta amar erlean eta artoa amazortzien. Urte au da lelengoz sakristauen izena aitetuten dana. Len sororak egoten zirian, baya oneik kendu zirian urte gitxi auferago ta onein ordez sakristauk ipiñi zirian. Oneintzat ugezaba edo patroyak amabost efeal emoten eban urtean, baya euren alogera izaiten zan iru duket. Juan de Uriguen'ek be emon eutzezan fabrikeari, eukezan amafen deposituti eun da amalau duket eta beste eun duket argiñek pagetakoko. Guztiz artu ebazan elezeak: 1.199 ptz. eta gastau: 1.019 ptz. Tofea egiten ibili zirian arginek zirian: Juan Otxoa de Uria ta Landia, Nikolas de Aniz, Anton Gonzalez de Aniz. Beste bearginek, Juan de Urkieta, Juan de Katalinaga-zabala ta Juan de Borikabalan-da. Afi ta aretan betikoak, Kristobal eta Agustin, Martin de Bolinaga'gaz. Demanda bat asi euden don Juan de Altonaga, kapilau'gaz, ia elezeak emon bear badeutzez meza esateko bear d'irian yantzi ta ganetikoak, ala ez, eta gastau zirian befogeta emeretzi efeal.

Madril'eko Auzitegi Nausireko Batzarkidientzat (Vocales del Tribunal de Garantias Constitucionales) gure udal edo ayuntamentuen izan zirian botoak dira: Abertzaleak, iru; Karlistak, bost; Republikanu-sozialistek, bat.

S.

Lemona.

Gogo-garastuta.
Aragi-il-saloki etxea iragiten diardue eta lotu edo lan-bako asko diran lez efi onetan, galerazo dabe batzuk bai ta bestiak lan barik egoten; edo danak edo bat-bez, baña danentzat eztagon lez lanik, ebatzita geratu da aldizka lan-egiteko, postuko giñakez bakea ixango ba'litzake.

Ba'dagoz kirtenak.
Etxean ogiteko bear-beafeko daben txindia akait-gelan eralgiten daben gurasoak be ba'dagozala entzuten dogu. Ederto yakog orixe, selan ez, aitak gaur baten bafe aldirat egiteafen Andra-umetxoak ilabete afausika.

Eguraldia.
Lengo egun baten euri-ase-asea bota euskun eta zoloak, igaliak guri-guri direla itxi, baña okolu batzubetan afiak arlo edefak maluzkau dauz batez be «Txitxotegi» inguruan; asko eta gauza edefak galdu dauz batez be piper, sagar, madari, matz ta ikoak.

Arito burukea.
Olabafi San Inasioko taberneruek ari-burukea euki dabela entzun dogu Muniketan, emengo ariek galdu egin-ei eban, ori dala-ta estaukagor kalte andirik, artzañak amaitu ziranezkeru setarako doguz ba aritoak? etxe galteako? Emen arito barik be buru-gogofak ba'dira.

Erozakaya.
Gaur asko diran lez Mendigoizaleak eta gitxi mendian ibiltan dakienak, asko ta asko, bular-estafi eta urdalatik nekatuten dira.

Ori, esta ura era txafean edaten dabelako baño. Auferantzian mendi-zaleok mendian batuko dozube zeuren osopidea. «Bedar-biguna» maye-

tzian loran dagoanian artu egixue, sikatu keruzpetan eta gorde aixe gitxi dagon tokian, mendira zoyazien besperan urazi irikiñazo eta bada areixek lufun beran seldatu irisi eun-sapi batek eta bereuki edo termobaten eroan ondo gosakaituta... Urtean gura dozubenian artu edontzian itufiko ur-edefa eta nastu bezeuki edo termoko edari ataltxo bat, ikusiko dozube selan esteutzuen naiz-ta urik gogofena edan kalterik egiten, gañera ondo ezotu eta osetu.

Euskal izena.
Jagoba, Claudio Ortuzar ta bere emaste Eugenie'ren semetxuari.

Erdel izena.
Justa, Juan Amondarain ta Rita Etxebafia'ren semiari.

Iepar baltea.
Isidro Lafinaga (belbilek atrapan-kue).

San Antolin egunian 10'n jaupie sermoyagaz.

Txadon nagusijen, goxeko seiretan Andra Marien bederatzifuna.

AUZOKO

Forua.

Azkarija.
Emeko gaste aldrada bateri aingira-azkari bat egin biar lebela gogoratu yaken. Burutasun au aufereroateko bafiz, efeka-zafari zati bat agortu, ta (nafe biar txafa euki leben) bafa aingira mordo edefa afapau be. Aingira oneik (beste gauzak batzukin geifute) Pinaga'tar Biforen sukaldari gaste ta bikañak gertau ta efeka-ertzian jan lebezan, asmo oneri joakan legez.

Naskaldija.
Egun batzuk emen igaro ondoren juan dira, Aresti'tar Margare ta Garbiñe emakume lirain eta abertzale zintzubak.

Ortuzar'tar Pantzeska jaupari gastia be, sendi-ondora etofita emen agurtu dogu.

Larakiztain'dar Alexander, udaldija igaro ondoren Eibar'eratu da.

Lekuona'tar Julen osagile-gaya, Madrid'era.

Borda'tar Kepa Batzokijan udaldija igaro ondoren Bilbao'ra.

Bermeo'ra joyalta, Gazteiz'ko goztaña emeko Pantzeskafen lekaretxian lotu zan. Berari eskuben mosu-emotera oste aundija bildu zan.

«Ibai-atze»ri.

Idazle-emakume (neure ustez beintzat) askar au, EKIN asteroko gozonen ofi-artera eldu yakuu «Ibai-Gane»ren utzunia betetan nator» esanaz, baña zer-ete jaso yatzu osoro ez betetako ba? Ain arin-ete aspertu zara? Jafai aufera ta «Eleiz-Txorija» gaz afuta, aze ederto abestuten dozuben, neuk be, noizik bein idatziko dot-eta.

IBAI GANE

Neure agura.

Ereño'ko EKIN saltzaliari, eta baita salatzaliari be, ofelako gurendakin laster dozue zeuek «Jauntxuok» amaya, Ereño osteko atxa ain aundija bada be laster da austu. Baña ori autz biurtuten bayako egon seguru «ferreteria» edo ofelakoren bat jafiko dabela. Egijak ariñago edo nekezago argi egin dau, eta zuok nai ta nai ez gurenda egijana izango da, EKIN urbedeinkatutan sartun eta apurtu egin dozue? bai arek ingiak, baña beren gogua azke dabil eta alpefik zuon zalapartakak.

Baita emen be bai dituz arerijauk EKIN'ek baña eskutukuak, ba neuk entzuna emakume biri Gernika'ko enparantzan, ori EKIN asko saltzen dala emen eta dana nastia eta guzura darabiela eta EKIN irakurten dan artian eurok ezer ezin leyela ja kati-llukoz! Ba nik gaurtik dirautzet ke-menik ba dozue argitalteko zeuek